Bestelako Xedapenak

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

4383

EBAZPENA, 2008ko martxoaren 31koa, Ingurumen sailburuordearena, Fagor Ederlan, Kooperatiba Elkarteari ingurumeneko baimen bateratua emateko dena, Eskoriatzako udalerrian motorrentzako presio altuko aleazio arineko osagaiak aluminio-injekzio bidez garatu, fabrikatu eta hornitzeko jardueraraako.

AURREKARIAK

2005eko abuztuaren 8an, Fagor Ederlan, Kooperatiba Elkarteak Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Eskoriatzako (Gipuzkoa) udalerrian motorrentzako presio altuko aleazio arineko osagaiak aluminio-injekzio bidez garatu, fabrikatu eta hornitzeko jardueraraako. Eskaerarekin batera, Eskoriatzako Udalak 2005eko apirilaren 6an eman zuen aldeko hirigintza-txostena eta dokumentazio tekniko hau aurkeztu zuen:

– Eskoriatza Fagor Ederlan, Kooperatiba Elkarteko aluminio-injekzioko fabrikarako oinarrizko proiektua motorraren negoziorako Eskoriatzan (Gipuzkoa) (2005eko uztaila).

– Eskoriatza Fagor Ederlan, Kooperatiba Elkarteko aluminio-injekzioko fabrikaren laburpen ez-teknikoa motorraren negoziorako Eskoriatzan (Gipuzkoa) (2005eko uztaila).

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, Fagor Ederlan, Kooperatiba Elkarteak, besteak beste, jardueraraako 1999ko azaroaren 26ko baimena zuen. Baimen hori aluminio-injekzioaren jardueraraako eman zen. Halaber, enpresa sustatzaileak ibilgura isurketak egiteko 1999ko azaroaren 17ko baimena, hondakin arriskutsuak ekoizteko 2000ko urriaren 5eko baimena, industria-hondakin geldoen ekoizleen erregistroko 1997ko abuztuaren 26ko inskripzioa, atmosferan kutsadura sor dezakeen jardueraren 2001eko otsailaren 20ko baimena, eta ondorengo handitze eta berritzeak zituen.

2005eko irailaren 20an, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoaren bidez proiektua jendaurrean jartzeko izapidea

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

4383

RESOLUCIÓN de 31 de marzo de 2008, del Viceconsejero de Medio Ambiente, por la que se concede autorización ambiental integrada para la actividad de desarrollo, fabricación y suministro de componentes de aleaciones ligeras en alta presión para motores, mediante inyección de aluminio, promovida por Fagor Ederlan, S. Coop. en el término municipal de Eskoriatza (Gipuzkoa).

ANTECEDENTES DE HECHO

Con fecha 8 de agosto de 2005 Fagor Ederlan, S. Coop. solicitó ante el Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente del Gobierno Vasco el otorgamiento de la autorización ambiental integrada de conformidad con lo dispuesto en la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, para la actividad de de desarrollo, fabricación y suministro de componentes de aleaciones ligeras en alta presión para motores, mediante inyección de aluminio, en el municipio de Eskoriatza (Gipuzkoa). La solicitud se acompañaba del Informe Urbanístico favorable del Ayuntamiento de Eskoriatza de 6 de abril de 2005, y de la siguiente documentación técnica:

– Proyecto Básico planta de inyección de aluminio de Eskoriatza Fagor Ederlan, S. Coop. para el negocio de motor en Eskoriatza (Gipuzkoa) (julio 2005).

– Resumen No Técnico planta de inyección de aluminio de eskoriatza. Fagor Ederlan, S. Coop. para el negocio de motor en Eskoriatza (Gipuzkoa) (julio 2005).

En el momento de la solicitud de la autorización de referencia, Fagor Ederlan, S. Coop. tenía, entre otras, licencia de actividad de fecha de 26 de noviembre de 1999. La citada autorización se concedió para la actividad de inyección de aluminio. Asimismo, la empresa promotora disponía de las correspondientes autorizaciones de vertido a cauce de 17 de noviembre de 1999, de productor de residuos peligrosos de 5 de octubre de 2000, inscripción en el registro de productores de residuos industriales inertes de 26 de agosto de 1997, de actividad potencialmente contaminadora de la atmósfera de 20 de febrero de 2001, y posteriores ampliaciones y renovaciones.

La Dirección de Calidad Ambiental con fecha 20 de septiembre de 2005 solicita informes a diversos órganos con intervención en el procedimiento en orden a que por el Órgano Ambiental se acuerde el trámite de in-

adosteari dagokionez. Hain zuzen, Eskoriatzako Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Industria Sailei, Ingurumen Saileko Uren Zuzendaritzari, eta Gipuzkoako Urak-i eskatu zizkien.

2006ko uztailaren 28an eta 2007ko irailaren 26an, Ingurumen Organoak agiri osagarriak txertatzeko eskatu zion sustatzaileari, eta espedientea 2007ko azaroaren 8an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumen sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Fagor Ederlan, Kooperatiba Elkarteak sustatutako proiektua egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, bi alegazio-idazki aurkeztu direla egiaztatu da, eta modu laburtuan I. eranskinean jaso dira.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko urtarrilaren 14an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Eskoriatzako Udalari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2008ko martxoaren 3an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Fagor Ederlan, Kooperatiba Elkartearen esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituta.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babesmaila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren, uztailaren 1eko Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duenaren, 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guz-

formación pública del proyecto, en concreto al Ayuntamiento de Eskoriatza, a los Departamentos de Sanidad e Industria del Gobierno Vasco, a la Dirección de Aguas del Departamento de Medio Ambiente y a Gipuzkoako Urak.

Con fechas 28 de julio de 2006 y 26 de septiembre de 2007, el Órgano Ambiental requirió al promotor que incorporara documentación adicional, completándose el expediente el 8 de noviembre de 2007.

Una vez constatada la suficiencia de la documentación aportada, por Resolución de 14 de noviembre de 2007, del Viceconsejero de Medio Ambiente, se acuerda someter a información pública, por un periodo de 30 días hábiles, el proyecto promovido por Fagor Ederlan, S. Coop., en orden a la presentación de cuantas alegaciones se estimasen oportunas, procediéndose a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco y en el del Territorio Histórico de Gipuzkoa, ambas con fecha 3 de diciembre de 2007. Igualmente se procede al anuncio pertinente en tres periódicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco con fecha de 2 de diciembre de 2007 y a efectuar la oportuna notificación personal a los vecinos colindantes.

Una vez culminado el trámite de información pública se constata que se han presentado dos escritos de alegaciones que de forma resumida se recogen en el anexo I.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 17 y 18 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, la Dirección de Calidad Ambiental solicita el 14 de enero de 2008 informe a los Ayuntamientos de Eskoriatza y Aretxabaleta, al Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco y al Consorcio de Aguas de Gipuzkoa, con el resultado que obra en el expediente.

Con fecha 3 de marzo de 2008, y en aplicación del artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el conjunto del expediente es puesto a disposición de Fagor Ederlan, S. Coop., incorporando la Propuesta de Resolución elaborada por el Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, constituye el objeto de la misma evitar o, cuando ello no sea posible, reducir y controlar la contaminación de la atmósfera, del agua y del suelo, mediante el establecimiento de un sistema de prevención y control integrado de la contaminación, con el fin de alcanzar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto.

En consonancia con lo dispuesto en el artículo 3 del Real Decreto 509/2007, de 20 de abril, por el que se aprueba el Reglamento para el desarrollo y ejecución de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, se integran en la presenta autorización todos los elementos y líneas de

tiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen dira eta jarduera horrekin zerikusia dute.

16/2002 Legearen 9. artikuluan xedatutakoa betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Fagor Ederlan, Kooperatiba Elkartearen baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak sortzekoa, ibilgura isurtzeko baimena, eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak ordezten du jarduera sailkatuetarako udallizentziaren prozedura, azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzkoan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Fagor Ederlan, Kooperatiba Elkarteari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egi-

producción que aun sin estar enumerados en el anexo 1 de la Ley 16/2002, se desarrollen en el lugar del emplazamiento de las instalaciones cuya actividad motivó su inclusión en el ámbito de aplicación de dicha ley, y guarden relación técnica con dicha actividad.

En aplicación de lo dispuesto en el artículo 9 de la Ley 16/2002, se somete a autorización ambiental integrada la construcción, montaje, explotación o traslado, así como la modificación sustancial, de las instalaciones en las que se desarrollen alguna de las actividades incluidas en el Anejo 1. La presente autorización mantiene como finalidad básica, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 11, la fijación de todas aquellas condiciones que garanticen el cumplimiento del objeto de la norma por parte de las instalaciones incluidas en su ámbito de aplicación, a través de un procedimiento que asegure la coordinación de las distintas Administraciones Públicas que deben intervenir en la concesión de dicha autorización para agilizar trámites y reducir las cargas administrativas de los particulares, a la par que viene a integrar en un solo acto de intervención administrativa las autorizaciones ambientales previstas en la legislación en vigor. En el caso de Fagor Ederlan, S. Coop. tales autorizaciones se circunscriben a la de producción de residuos peligrosos y no peligrosos, vertido a cauce y, entre otras determinaciones de carácter ambiental, las referidas a la materia de contaminación atmosférica y en materia de prevención y corrección de la contaminación del suelo constatando la participación en el expediente, a través de la emisión de los preceptivos informes, de otras administraciones y organismos competentes.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 29 de la Ley 16/2002, el procedimiento para el otorgamiento de autorización ambiental integrada sustituye al procedimiento para el otorgamiento de la licencia municipal de actividades clasificadas prevista en el Decreto 2414/1961, de 30 de noviembre, sobre Actividades Molestas, Insalubres, Nocivas y Peligrosas, salvo en lo referente a la resolución definitiva de la autoridad municipal. A estos efectos la autorización ambiental integrada, será, en su caso, vinculante para la autoridad municipal cuando implique la denegación de licencias o la imposición de medidas correctoras, así como en lo referente a aspectos medioambientales recogidos en el artículo 22 de la mencionada norma. Afirma el citado artículo 29 que lo anteriormente dispuesto se entiende sin perjuicio de las normas autonómicas sobre actividades clasificadas que en su caso fueran aplicables. En aplicación de las prescripciones transcritas, el procedimiento de autorización ambiental integrada referido a Fagor Ederlan, S. Coop. ha incluido el conjunto de trámites previstos al efecto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección de Medio Ambiente del País Vasco.

Por último, en orden a determinar los valores límites de emisión de las sustancias contaminantes que puedan ser emitidas por la instalación, así como otras condiciones para la explotación de la misma a fin de garan-

terakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenen erabilera. Bereziki Europako Batzordearen 2005eko maiatzeko «Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry» Burdinaren Metalurgiako BREF agiriaren edukia hartu da kontuan.

Espedienteko txostenak eta aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, horiekin lotuta txostena erantsi da I. eranskinean, eta ebazpen-proposamena egin eta Fagor Ederlan, Kooperatiba Elkarteak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, 2002ko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoaren 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da eta organo hau da ingurumeneko baimen integratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duenaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2008ko martxoaren 3an emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua, Legea burutzeko araudia onartzen duena; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatzeko den gainerako araudia,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Helbide soziala Eskoriatzako (Gipuzkoa) udalerriko Torrebaso pasealekuko 7. zenbakian duen eta IFK: F-20025292 zenbakia duen Fagor Ederlan, Kooperatiba Elkarteari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, motorrentzako presio altuko aleazio arineko osagaiak aluminio-injekzio bidez garatu, fabrikatu eta hornitzeko jarduerarako, ibilgailuaren motorreko piezak lortzeko Eskoriatzako udalerrian, eta ebazpen honen bigarren atalean zehaztutako baldintzak jarraituz.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 2.5.b kategorian sartuta dago, «20 t/egun

tizar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto, en la formulación de la presente Resolución se ha tenido en cuenta el uso de las mejores técnicas disponibles. En particular se ha considerado el contenido del documento BREF de Metalurgia Férrea «Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry», de mayo 2005, de la Comisión Europea.

Una vez analizados los informes obrantes en el expediente y las alegaciones formuladas, en relación con las cuales se adjunta informe en el anexo I, se suscribió Propuesta de Resolución, a la que se incorporaron las condiciones aplicables al proyecto promovido por Fagor Ederlan, S. Coop.

Culminadas, de acuerdo con lo expuesto, las tramitaciones arriba referidas, cumplido el trámite de audiencia contemplado en el artículo 20 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación y dada la competencia de este órgano para la concesión de la presente autorización ambiental integrada de conformidad con lo previsto en el artículo 13 de la mencionada norma y el artículo 9 del Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio.

Vistos la propuesta de resolución de 3 de marzo de 2008 del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación, el Real Decreto Legislativo 1302/1986, de 28 de junio, de Evaluación de Impacto Ambiental, modificado por la Ley 6/2001, de 8 de mayo, por la que se modifica el anterior, el Real Decreto 1131/1988, de 30 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento para su ejecución, el Decreto 340/2005, de 25 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y demás normativa de aplicación,

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN:

Primero.– Conceder a Fagor Ederlan, S. Coop. con domicilio social en Torrebaso Pasealekua, 7, del término municipal de Eskoriatza (Gipuzkoa) y CIF: F-20025292, Autorización Ambiental Integrada para la actividad de desarrollo, fabricación y suministro de componentes de aleaciones ligeras en alta presión para motores, mediante inyección de aluminio, para la obtención de piezas de motor del vehículo, en el término municipal de Eskoriatza, con las condiciones establecidas en el apartado segundo de esta Resolución.

La actividad se encuentra incluida en la categoría 2.5.b. «Instalaciones para la fusión de metales no ferrosos, con una capacidad de fusión de más de 20 t/día»

baino galdatze-ahalmen handiagoa duten metal ez-ferrosoak galdatzeko instalazioak».

Fagor Ederlan, Kooperatiba Elkarteak Eskoriatzako injekzio-fabrikan garatzen duen jarduera ibilgailuen motorrerako aluminiozko piezak fabrikatzea da.

Fabrika horretan garatzen diren prozesu nagusiak hauek dira:

– Galdaketa: lehenik, aluminio likidoa zein aluminio-lingote solidoak, karter-aluminioa eta beste karter mota batzuk hartu eta gordetzen dira. Ondoren, fabrikan jarduten duten zelulei hornitzeko beharrezkoa den aluminio likidoa galdatu eta mantentze-lanak egiten dira. Injekzio-zeluletako hondar-aluminioa itzulera eta txatarra forman berreskuratzen da. Azkenik, zepa kentzen da, labean sartzen diren materialekin doazen ezpurutasunak, eta metal likidoak airearekin ukipenean sortzen dituen oxidoak eta ezpurutasunak ezabatzearren.

– Moldekatzea: aluminioa bere mantentze-labe propioan edukitzen da injekzio-makina bakoitzean, eta aluminio likidoa mantentze-labe nagusietatik bertara eramaten da zali mugikorren bidez. Metala dosifikatu ondoren, altzairuzko moldeetan presioz sartzen da, horiek aurrez produktu desmoldekatzaileekin tratatuta altzairu-aluminio itsaspena gutxitzeko, eta horrela pieza moldetik desmoldekatzeko. Moldekatutako pieza solidotzeko behar den denbora igarota, moldea ireki eta pieza erauzi egiten da, bai uhal garraiatzailearen bidez, bai robot batekin. Erauzitako pieza uretan edo haizagailu bidez hozten da. Ondoren, piezak prentsatu eta kalitate-kontrola egiten da. Azkenik, uneko produktua edo bukatua enbalatu egiten da, eta pieza akastunak galdaketa-atalera itzultzen dira.

– Akabera: lehenik, granailatzeko makinen bidez, egon daitezkeen bizar itzurgarriak kentzen dira. Ondoren, trokela iritsi ez den lekuetako bizarrak kentzen dira. Jarraian, ezarritako kalitate-kontrolak egiten dira eta piezak enbalatu egiten dira bidaltzeko, edo uneko produktu gisa mekanizazio-atalera bidaltzen dira.

– Mekanizazioa: fase honetan behar duten piezak mekanizatzen dira. Piezak mekanizatzeko, taladrina erabiltzen da hozgarri gisa eta mekanizazio-tresnen itsaspen-aurkakoa. Pieza mekanizatu ondoren, ikuzgailu baten bidez ikuzten da, piezetan gera daitezkeen txirbilak eta taladrina kentzeko. Ondoren piezaren kontrola egiten da, eta azkenik, pieza kontrolatutakoan, enbalatu egiten da.

– Enbalatzea:

Ekoizteko fabrikak gehienez 7,5 tona/ordu galdatzeko ahalmena du, eta 180 tona/egun da hori.

del anexo 1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación.

La actividad que Fagor Ederlan, S. Coop. desarrolla en su planta de Inyección de Eskoriatza es la de fabricación de piezas de aluminio para el motor de los vehículos.

Los procesos principales desarrollados en esta planta son los siguientes:

– Fusión: en primer lugar se recepciona y almacena el aluminio, tanto líquido como sólido en forma de lingotes, aluminio carter y otros tipos de carter. A continuación se procede a la fusión y mantenimiento del aluminio en estado líquido, necesario para el suministro a las células operativas en planta. Se recupera aluminio residual proveniente de las células de inyección en forma de retornos y chatarras. Finalmente se procede al desescoriado, con el fin de eliminar impurezas que acompañan a los materiales que se introducen en el horno, y los óxidos e impurezas que se forman al contacto del metal líquido con el aire.

– Moldeo: el aluminio se mantiene en cada máquina de inyección en su propio horno de mantenimiento, lugar a donde el aluminio líquido se traslada desde los hornos principales de mantenimiento mediante cucharas móviles. Una vez dosificado el metal, éste se introduce a presión en los moldes de acero, previamente tratados con productos desmoldeantes para disminuir la adherencia acero-aluminio y así poder desmoldear la pieza del molde. Transcurrido el tiempo necesario para la solidificación de la pieza moldeada, se abre el molde y se extrae la misma bien a través de cinta transportadora, bien con un robot. La pieza extraída se enfría en agua o mediante ventiladores. Posteriormente se procede al prensado de las piezas y a la realización del control de calidad. Finalmente se procede al embalaje del producto en curso o terminado y al retorno de las piezas defectuosas a la sección de fusión.

– Acabado: primeramente, mediante granalladoras, se eliminan las posibles rebabas desprendibles. Posteriormente, se rebaban aquellas zonas donde no haya llegado el troquel. Seguidamente, se realizan los controles de calidad establecidos y se embalan las piezas para su expedición o bien como producto en curso se envían a la sección de mecanizado.

– Mecanizado: en esta fase se procede a mecanizar las piezas que lo requieran. Para el mecanizado de las piezas se utiliza taladrina como refrigerante y antiadherente de las herramientas de mecanizado. Una vez mecanizada la pieza, se procede al lavado de la misma a través de una lavadora, para eliminar posibles virutas y taladrina que pueda quedar en las piezas. Posteriormente se procede al control de la pieza, finalmente una vez controlada la pieza se realiza su embalaje.

– Embalaje:

La planta productiva tiene una capacidad máxima de fusión de 7,5 toneladas/hora, lo que equivale a 180 toneladas/día.

Ekoizte-prozesurako erabilitako energia-baliabideak energia elektrikoa, gas naturala, gasolioa eta fuel-olioa dira. Energia elektrikoa labeen ekipo osagarri, injekzio-makina, granailatzeko makina, mekanizazio-lerro, argi eta garabietarako erabiltzen da batik bat, eta urtean 14.530.896 kWh-ko kontsumoa dute. Gas naturala galdatzeko labeetan, zaliak eta aldaketa-iragazkiak lehortzeko eta berotzeko prozesuan, moldeak eta berogailu-erradiatzaileak berotzean erabiltzen da, eta urtean 2.412.374 m3 kontsumitzen dira. Gasolioa barne-garraiorako eta multzo elektrogenorako erabiltzen da, eta urtean 86.236 l eta 665.000 l kontsumitzen dira hurrenez hurren. Bestetik, fuel-olioa berogailu-galdaretarako erregai gisa erabiltzen da, eta urtean 310.940 l kontsumitzen dira.

Ura industria-prozesuan eta barne-zirkuituak eta multzo hidraulikoak hozteko erabiltzen da, eta piezak eta moldeak hozteko, osasun- eta garbiketa-zerbitzuetan eta suteen aurka babesteko sarean, eta udal-saretik hartzen da dena.

Fabrikan sortzen diren isuriak hauek dira:

– Ur sanitarioa Gipuzkoako Ur Kontsortzioko kolektorera isurtzea.

– Hozteko uraren putzuak Deba ibaira hustea.

– Ur-araztegiko hondakin-ura Gipuzkoako Ur Kontsortzioko kolektorera isurtzea.

Hondakin-ura arazteko estazio bat dago, hauek osatzen dutena: arazteko instalazio fisiko-kimikoa; ondoren, ohe finkoko erreaktoreak erabiltzen dituen arazketa biologikoan, masa lignito-ikatza erabiliz ibilgetzen da; eta azkenean 30 m3-ko edukierako nahasketa-gordailu bat.

Instalazioak isuri atmosferikoen 7 foku ditu: bat galdatze-prozesuari lotua, bost injekzio-prozesuari, eta bat granailatze-prozesuari.

Injekzio-prozesuko fokuek iragazpen elektrostatikoko sistemak dituzte; granailatze-prozesuari lotutako fokuak, berriz, hezean arazteko sistema bat du.

Hondakin arriskutsuak sortzen dituzten prozesuak aluminioa galdatzea, aluminioa injektatzea, aluminioa mekanizatzea, eta tresnak, industriako hondakin-uraren araztegia eta zerbitzu orokorrak mantentzeko lanak dira.

Ekoizte-prozesuek aplikatzekoak diren BREF agirietan jasotako teknika erabilgarri onenak dituzte: Europako Batzordearen 2005eko maiatzeko «Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry» Burdinaren Metalurgiako BREF agiria. Teknika erabilgarri onenak hauek dira:

Los recursos energéticos utilizados para el proceso productivo son energía eléctrica, gas natural, gasóleo y fuel oil. La energía eléctrica se utiliza principalmente para los equipos auxiliares de hornos, máquinas de inyección, granalladoras, líneas de mecanizado, alumbrado y grúas, suponiendo un consumo anual de 14.530.896 kWh. El consumo de gas natural está vinculado a los hornos fusores, proceso de secado y precalentamiento de cucharas y filtros de trasvase, calentamiento de moldes y radiantes de calefacción, suponiendo un consumo anual de 2.412.374 m3. El gasóleo se utiliza para el transporte interno y grupo electrógeno, con un consumo anual de 86.236 l y 665.000 l respectivamente. Por su parte, el fuel oil se utiliza como combustible para las calderas de calefacción, suponiendo un consumo anual de 310.940 l.

El agua se utiliza tanto en el proceso industrial, para refrigeración de los circuitos internos y grupos hidráulicos, y para enfriamiento de piezas y moldes, así como en servicios sanitarios y de limpieza, y en la red de protección contra incendios, y procede en su totalidad de la red municipal.

Los vertidos que se generan en la planta son los siguientes:

– Vertido de aguas sanitarias con destino al colector del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.

– Vaciado de las balsas de las aguas de refrigeración, con destino al río Deba.

– Vertido de aguas residuales procedentes de la depuradora con destino al colector del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.

Se cuenta con una estación depuradora de aguas residuales, constituida por una instalación de depuración físico-química, una posterior depuración biológica que emplea reactores de lecho fijo donde se inmoviliza la masa a base de carbón de lignito, y un depósito final de mezcla de 30 m3 de capacidad.

La instalación cuenta con 7 focos de emisión a la atmósfera: uno de ellos asociado al proceso de fusión, cinco al proceso de inyección y uno al proceso de granallado.

Los focos del proceso de inyección cuentan con sistemas de filtración electrostática, mientras que el foco asociado al proceso de granallado cuenta con un sistema de depuración vía húmeda.

Los procesos generadores de residuos peligrosos son la fusión de aluminio, la inyección de aluminio, el granallado, la mecanización de aluminio, el mantenimiento de utillajes, depuradora de aguas residuales industriales y servicios generales.

Los procesos productivos incorporan las mejores técnicas disponibles, recogidas en los documentos BREF de aplicación: BREF de Metalurgia Férrea «Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry», de mayo 2005, de la Comisión Europea. Estas mejores técnicas disponibles

biltegiratzeko sistema estaliak eta lurzorua babesteko neurriak dituztenak; xurgatze-sistemak galdatze-prozesuetan; presio altuko injekzio-sistema; hauspeatzaile elektrostatikoak; isuriak hezean araztea, eta ingurumena kudeatzeko sistema. Horrela, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruz indarrean den araudian ingurumena orokorrean babesteko helburuak beteko dira.

Bigarrena.– Fagor Ederlan, Kooperatiba Elkarteak Eskoriatzako udalerrian motorrentzako presio altuko aleazio arineko osagaiak aluminio-injekzio bidez garatu, fabrikatu eta hornitzeko jarduera ustiatzeko, ondorengo baldintzak eta eskakizunak jartzea:

A) Fagor Ederlan, Kooperatiba Elkarteak administrazioarekiko harremanen arduradunari buruzko datu hauek jakinaraziko dizkio Ingurumen Sailburuordetzari: izen-abizenak, helbidea eta titulazioa.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Instalazioaren funtzionamendurako baldintza orokorrak.

B.1.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.1.– Baldintza orokorrak.

Fagor Ederlan, Kooperatiba Elkartearen fabrika ustiatzean atmosferara egingo diren isurketek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako balioak gaindituko.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango gai kutsatzaileak mugarik gabe isuri eta horiek biltzea teknikoki eta/edo ekonomikoki bideragarria ez denean, edota ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabeko isurtzeak murrizteko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

consisten en sistemas de almacenamiento cubiertos y con medidas de protección del suelo, sistemas de aspiración en los procesos de fusión, sistema de inyección a alta presión, precipitadores electrostáticos, depuración de emisiones por vía húmeda, sistema de gestión ambiental, de forma que se cumplan los objetivos para la protección del medio ambiente en su conjunto señalados en la normativa vigente en materia de prevención y control integrados de la contaminación.

Segundo.– Imponer las siguientes condiciones y requisitos para la explotación de la actividad de desarrollo, fabricación y suministro de componentes de aleaciones ligeras en alta presión para motores, mediante inyección de aluminio, promovido por Fagor Ederlan, S. Coop. en el término municipal de Eskoriatza.

A) Fagor Ederlan, S. Coop. notificará a la Viceconsejería de Medio Ambiente, los siguientes datos en relación al responsable de las relaciones con la Administración: nombre y apellidos, domicilio y titulación.

B) Las medidas protectoras y correctoras se ejecutarán de acuerdo con lo previsto en la documentación presentada por el promotor ante esta Viceconsejería de Medio Ambiente, de acuerdo a la normativa vigente y con lo establecido en los apartados siguientes:

B.1.– Condiciones generales para el funcionamiento de la instalación.

B.1.1.– Condiciones para la protección de la calidad del aire.

B.1.1.1.– Condiciones generales.

La planta Fagor Ederlan, S. Coop. se explotará de modo que, en las emisiones a la atmósfera, no se superen los valores límite de emisión establecidos en esta Resolución.

Toda emisión de contaminantes a la atmósfera generada en el proceso deberá ser captada y evacuada al exterior por medio de conductos apropiados previo paso, en su caso, por un sistema de depuración de gases diseñado conforme a las características de dichas emisiones.

Podrán exceptuarse de esta norma general aquellas emisiones no confinadas cuya captación sea técnica y/o económicamente inviable o bien cuando se demuestre la escasa incidencia de las mismas en el medio.

Se tomarán las disposiciones apropiadas para reducir la probabilidad de emisiones accidentales y para que los efluentes correspondientes no presenten peligro para la salud humana y seguridad pública. Las instalaciones de tratamiento de los efluentes gaseosos deberán ser explotadas y mantenidas de forma que hagan frente eficazmente a las variaciones debidas a la temperatura y composición de los efluentes. Asimismo se deberán reducir al mínimo la duración de los periodos de disfuncionamiento e indisponibilidad.

B.1.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Fagor Ederlan, Kooperatiba Elkartearen instalazioak foku hauek ditu, indarrean den araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera (m)	Barne-diametroa (m)	Katalogazioa	UTM koordenatuak	
					Taldea	X	Y
1	20004901 -01	1000-1/1000-2/1600-1 zelulak - Injekzioa	1,33	0,80	C	539839	4764048
2	20004901 -02	700-1 eta 700-2 zelulak - Injekzioa	4,45	0,90	C	539886	4763985
3	20004901 -03	1000-3/800/1350-2 - Injekzio zelulak	1,35	0,80	C	539875	4763981
4	20004901 -04	2000-3 eta 2000-5 zelulak - Injekzioa	9	0,65	C	539881	4764033
5	20004901-05	2000-4 eta 2000-6 zelulak	9	0,65	C	539887	4764022
6	20004901-06	Aluminio galdaketa	15	1,6	B	539912	4764055
7	20004901-07	Mebusa 25 eta 36 granailatzeko makina	8	0,85	B	539820	4764031
8	20004901-08	2000-7 zelula	9	0,65	C	539876	4764058

B.1.1.2.– Identificación de los focos. Catalogación.

La instalación de Fagor Ederlan, S. Coop. cuenta con los siguientes focos, catalogados de acuerdo con la normativa vigente:

N.º foco	*Código de foco*	*Denominación foco de emisión*	*Altura (m)*	*Diámetro interior (m)*	*Catalogación*	*Coordenadas UTM*	
					Grupo	*X*	*Y*
1	*20004901-01*	*Células 1000-1/1000-2/1600-1 - Inyección*	*1,33*	*0,80*	*C*	*539839*	*4764048*
2	*20004901-02*	*Células 700-1 y 700-2 - Inyección*	*4,45*	*0,90*	*C*	*539886*	*4763985*
3	*20004901-03*	*Células 1000-3/800/1350-2 - Inyección*	*1,35*	*0,80*	*C*	*539875*	*4763981*
4	*20004901-04*	*Células 2000-3 y 2000-5 - Inyección*	*9*	*0,65*	*C*	*539881*	*4764033*
5	*20004901-05*	*Células 2000-4 y 2000-6*	*9*	*0,65*	*C*	*539887*	*4764022*
6	*20004901-06*	*Fusión de aluminio*	*15*	*1,6*	*B*	*539912*	*4764055*
7	*20004901-07*	*Granalladora mebusa 25 y 36*	*8*	*0,85*	*B*	*539820*	*4764031*
8	*20004901-08*	*Célula 2000-7*	*9*	*0,65*	*C*	*539876*	*4764058*

B.1.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

a) Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurketek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gainditu ko:

Fokua(k)	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1	Partikulak guztira (mg/Nm3)	20
2	Partikulak guztira (mg/Nm3)	20
3	Partikulak guztira (mg/Nm3)	20
4	Partikulak guztira (mg/Nm3)	20
5	Partikulak guztira (mg/Nm3)	20
6 (1)	Partikulak guztira (mg/Nm3)	20
	Karbono monoxidoa (CO) (ppm)	500
	Nitrogeno oxidoak (NOx) (ppm)	300
7	Partikulak guztira (mg/Nm3)	20
8	Partikulak guztira (mg/Nm3)	20

(1) Txatarra zikina ez galdatzeko baldintzak betetzen diren artean.

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa, eta gas lehorra.

b) Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu ko, arauz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez) zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasuen % 25ean muga horiek gehienez % 40an gainditzea onartuko da. Tolerantzia hori gainditu z gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi horretako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25a gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, isurtze-fokuaren eragin-eremuko immisio-mailek ezin izango dituzte inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

c) Ezarritako IMBak lortzen ez badira, beharrezko neurri zuzentzaileak hartuko dira (arazteko sistemak instalatzea, etab.) isurtze atmosferikoen balio horiek betetzea ziurtatzeko.

B.1.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako gas-hondarrak kanporatzeko tximiniek ez dute B.1.1.2 atalean jasota dagoen goreneko kota baino baxuagoa izango. Tximinietan behar beste neurri

B.1.1.3.– Valores límite de emisión.

a) La planta se explotará de modo que, en las emisiones a la atmósfera, no se superen los siguientes valores límite de emisión:

Foco(s)	Sustancias	Valores límite emisión
1	Partículas totales (mg/Nm3)	20
2	Partículas totales (mg/Nm3)	20
3	Partículas totales (mg/Nm3)	20
4	Partículas totales (mg/Nm3)	20
5	Partículas totales (mg/Nm3)	20
6 (1)	Partículas totales (mg/Nm3)	20
	Monóxido de carbono (CO) (ppm)	500
	Óxidos de nitrógeno (NOx) (ppm)	300
7	Partículas totales (mg/Nm3)	20
8	Partículas totales (mg/Nm3	20

(1) En tanto se mantengan las condiciones de no fundir chatarra sucia.

Dichos valores están referidos a las siguientes condiciones: 273 K de temperatura, 101,3 kPa de presión, y gas seco.

b) Los parámetros medidos no superarán los valores límite de emisión en inspecciones periódicas reglamentarias (tres medidas de una hora cada una, como mínimo) medidos a lo largo de ocho horas. Se admitirá como tolerancia de medición que puedan superar en el 25% de los casos en una cuantía que no exceda del 40%. De rebasarse esta tolerancia, el periodo de mediciones se prolongará durante una semana, admitiéndose, como tolerancia global de este periodo, que puedan superarse los niveles máximos admisibles en el 6% de los casos en una cuantía que no exceda el 25%. Estas tolerancias se entienden sin perjuicio de que en ningún momento los niveles de inmisión en la zona de influencia del foco emisor superen los valores higiénicamente admisibles.

c) En caso de que no se obtengan los VLE establecidos se deberán tomar las medidas correctoras necesarias (instalación de sistemas de depuración, etc.) para asegurar el cumplimiento de dichos valores de emisión a la atmósfera.

B.1.1.4.– Sistemas de captación y evacuación de gases.

Las chimeneas de evacuación de los gases residuales de los focos alcanzarán una cota de coronación, no inferior a la establecida en el apartado B.1.1.2. Las

hartuko dira Industria Ministerioak 1976ko urriaren 18an emandako Agindua (industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurre hartu eta hori zuzentzeari buruzkoa) bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen gunera bitarteko distantziak (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute. L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetan, inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-puntuaren baliozkotasuna justifikatzea eskatuko da.

Isurtze barreiatuak murrizteko, isurtzeak biltzeko, husteko eta arazteko sistema guztien mantentze-lan zuzenak egingo dira, eta gainera, beste jarduera hauek: instalazioak egunero eta astero garbitzea, kanpoko ateak ixtea, pabiloia orokorrean ixtea, etab., isurtze horiek minimizatzea bermatzeko. Aipatutako informazio guztia agiri honen D.3 ataleko prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan jaso eta erregistratuko da.

B.1.2.– Saneamendu-sarera eta ibilgura isurtzeko baldintzak.

B.1.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: burdinarik gabeko metalak galdatzea.

Klasea: 1-taldea: 2-EJSN: 27.54

chimeneas dispondrán de los medios necesarios para el cumplimiento de las condiciones exigidas en la Orden del Ministerio de Industria, de 18 de octubre de 1976, sobre prevención y corrección de la contaminación atmosférica de origen industrial permitiendo, entre otros, accesos seguros y fáciles a los puntos de toma de muestras.

En particular, en lo que se refiere a la localización y características de los orificios previstos para la toma de muestras, las distancias del punto de muestreo a cualquier perturbación del flujo gaseoso antes del punto de medida según la dirección del flujo y dirección contraria (parámetros L1 y L2) deberán ajustarse a lo dispuesto en el Anejo III de la Orden de 18 de octubre de 1976. Para los focos en los no se cumplan las distancias de L1 ≥ 8D y L2 ≥ 2D, nunca se admitirán valores de L1 < 2D y L2 < 0,5D. En estos casos se exigirá que en el informe de mediciones se justifique validez del punto de muestreo.

Con objeto de minimizar las emisiones difusas se llevará un correcto mantenimiento de todos los sistemas de captación, evacuación y depuración de las distintas emisiones, además se llevarán a cabo actividades de: limpiezas diarias y semanales de las instalaciones, cerramiento de las puertas exteriores, cerramiento de la nave en general, etc. que aseguren una minimización de dichas emisiones. Toda la información mencionada deberá estar reflejada y registrada en el manual de mantenimiento preventivo del apartado D.3 del presente documento.

B.1.2.– Condiciones para el vertido a la red de saneamiento y a cauce.

B.1.2.1.– Clasificación, origen, medio receptor y localización de los vertidos.

Tipo de actividad principal generadora del vertido: fundición de metales no férreos.

Clase: 1-grupo: 2-CNAE: 27.54

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Arro hidrografikoa	Ingurune hartzailearen kategoria	Isurketa-puntuaren UTM koordenatuak
1, 4, 5	Hozteko ura (urtero hustea)	Hozteko dorreetako putzuak	Deba ibaia	Deba	I	X: 539810 Y: 4764096
3	Industriako hondakin-ura	Industria-uraren araztegia	Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren kolektorea	-	-	X: 539988 Y: 4764033
2, 6	Hiri-hondakinak	Osasun-zerbitzuak	Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren kolektorea	-	-	X: 539988 Y: 4764033

Punto de vertido	*Tipo de aguas residuales*	*Procedencia del vertido*	*Medio receptor*	*Cuenca hidrográfica*	*Categoría del medio receptor*	*Coordenadas UTM del punto de vertido*
1, 4, 5	*Aguas de refrigeración (vaciado anual)*	*Balsas de las torres de refrigeración*	*Río Deba*	*Deba*	*I*	*X: 539810 Y: 4764096*
3	*Aguas residuales industriales*	*Depuradora de aguas industriales*	*Colector del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa*	*-*	*-*	*X: 539988 Y: 4764033*
2, 6	*Urbanas*	*Servicios higiénicos*	*Colector del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa*	*-*	*-*	*X: 539988 Y: 4764033*

B.1.2.2.– Industria-isurketen gehienezko emariak eta bolumenak.

a) 1., 4. eta 5. isurketak: hozteko uraren zirkuitua hustea.

Orduko puntako emaria	3 m3/h
Eguneko gehienezko bolumena	75 m3/egun
Urteko gehienezko bolumena	226 m3/urte

Gainera, «Motorra» negozioko zirkuituko «Suspentsioa-burdina galdatzea» eta «Transmisioa-aluminioa injektatzea» jarduera edo «negozioetako» zirkuituak hustea barne hartzen dira, husteko azpiegiturak banatzen dituztelako.

b) 3. isurketa: industriako hondakin-ura.

Orduko puntako emaria	10 m3/h
Eguneko gehienezko bolumena	250 m3/h
Urteko gehienezko bolumena	52.800 m3/urte

B.1.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Ondorengo zerrendan ageri dira isurketen kutsaduraren parametroen ezaugarri nagusiak, bakoitzarentzat ezarritako muga-balioekin:

a) 1., 4. eta 5. isurketak: hozteko uraren zirkuituak ibilgura hustea.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH-a	5,5-9,5
DQO (mg/l)	40
Solido esekiak (mg/l)	80

B.1.2.2.– Caudales y volúmenes máximos de vertidos industriales.

a) Vertidos 1, 4 y 5: vaciado circuitos aguas de refrigeración.

Caudal punta horario	3 m3/h
Volumen máximo diario	75 m3/día
Volumen máximo anual	226 m3/año

Incluyen además del circuito de negocio «Motor», los vaciados de los circuitos de las actividades o «negocios» de «Suspensión-fundición de hierro» y «Transmisión-inyección de aluminio» al compartir las infraestructuras de evacuación.

b) Vertido 3: aguas residuales industriales.

Caudal punta horario	10 m3/h
Volumen máximo diario	250 m3/h
Volumen máximo anual	52.800 m3/año

B.1.2.3.– Valores límite de emisión.

Los parámetros característicos de contaminación del vertido serán, exclusivamente, los que se relacionan a continuación, con los límites máximos que se especifican para cada uno de ellos:

a) Vertidos 1, 4 y 5: vaciado circuitos aguas de refrigeración a cauce.

Parámetros	Valores límite de emisión
pH	5,5-9,5
DQO (mg/l)	40
Sólidos en suspensión (mg/l)	80

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
Olioak eta koipeak (mg/l)	20
Burdina guztira (mg/l)	2
Hondar-kloro aske baliokidea (mg/l)	<0,05
Fosforoa (mg/l)	3
Zinka (mg/l)	3
AOX (mg/l)	0,5

Tenperatura: ibilguan 1,5 ºC-tik behera handitzea.

b) 3. isurketa: industriako hondakin-ura kolektorera.

Industria-uraren azken isurketak «Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren kolektorera isurtzea arautzen duen erregelamendua»-n agertzen diren mugak eta baldintzak bete beharko ditu, erakunde horrek egoki deritzon zehaztapen, aldaketa edo salbuespenekin, muga gehigarri hauek izan ezik:

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH-a	5,5, - 9,5
DQO (mg/l)	2000
Solido esekiak (mg/l)	80
Olioak eta koipeak (mg/l)	100
Tentsoaktibo anionikoak-detergenteak (mg/l)	2
